

SUBIA ETA CHINGURRIYAK

Sube gorri zakar bat
zebillen soruan,
oso aserraturik
aldarte zoruan;
sardia azaldurik
errabisutuan
inguruko guztiyak
beldurtzen zituan;
ura bentzutu nairik
asko ziran joaten,
aundiyak ari gogor
egin zezayoten;
bañan bertaratu ta
ura ikusirik,
denak jirutzen ziran
beldurraz josirik.
Chingurri gorri pilla
zan an inguruan
ta denak sartu ziran
subien zuluana,
eta kontuz arturik
zuluaren bia,
zai zeuden etortzeko
bertara subia.
Au sartu zan kanpotik
oso zalapartan,
ta denak ziran argan

ichachi batetan;
ain gogor erasorik
guztiyak berari,
akabatu ta utzi
zuten sube ori.

.

Zenbat aldiz aundiyak
ezin duten gauza,
chikiyak modu onez
egiten du aisa;
gure artian ere
au baita gertatzen,
chikiyak moduz aundi
asko du bentzutzen.

JOSÉ ARTOLA.

